

«Domina lortzeko aukera ez dut urrun ikusten»

Esme Lopez Bera Berako eskubaloijokalaria gaitzak bete lan dabil Uztailaren 1ean, Espainiako selekzioarekin Olinpiar Jokoak prestatzen hasiko da. Dena dela, 28 urteko hegalekoak beste hitzordutik garrantzitsu bat du aurretik: hilaren 26an, larunbata, ezkontzekoa da.

Raul Perez

Zer eskatuko diozu zure buruari Olinpiar Jokoetan?

Anbizio handiz joango naiz Greziara, inoiz baino hobe jokatzeko asmoarekin eta domina bat irabazteko itxaropenarekin; helburu hori ez dut batere urrun ikusten. Dena dela, badakit aldez aurretik ez dagoela ezer baieztatzetik.

Aholkuren bat jaso al duzu Atenasi begira?

Monse Puche jokalaria valentziarrak —aurten Munduko bigarren jokalaririk onena izan da— zera aholkatu dit: ahal dudan guztia gozatzeko eta ahal ditudan txapelketa guztiak ikusteko. Ahalik eta txapel-dun gehien ezagutzeko ere esan dit, oso aberasgarria delako olinpiada askotan izandako kirolariek hitz egitea. Asko ikastea espero dut. 29 urte beteko ditut laster, eta zail ikusten dut hurrengo olinpiadetara joatea. Ziur asko Atenasen harri eta zur geratuko naiz, nire burua txapel-dun handien artean ikusterakoan. Japoniarren antzera ibiliko naiz, dena grabatu nahian.

Larunbatean, hilak 26, ezkonduko zara. Eztei-bidaiarik egiteko aukerarik ez duzu izango; uztailaren 1ean Espainiako selekzioarekin Olinpiar Jokoak prestatzen hasiko zara eta. Senargaia ez al da triste geratuko?

Ezta pentsatu ere. Bera ere kirolaria da, Bera Bera errugbi taldean ari da. Ezkontza atzeratzeko prest zegoen, badakielako niretzat oso txapelketa garrantzitsua dela. Baina jakina, ez dagoenez Olinpiar Jokoen data aldatzerik...

Olinpiadetara etxeko lanak eginda zoaz: zure taldeak, Bera Berak, aurten ere Europarako txartela lortu du.

Bai, baina urte mordoan daramagu helburu hori lortzen. Ez da gutxi, baina dagoeneko

gogoia dut txapelketaren bat irabazteko.

Amaia Ugartemendiak eskubaloia utzi berri du 38 urterekin. Zuk urte asko daramatzazu lehen taldean, 16 urte zenituenetik. Amaia marka gaitzetzeko prest al zaude?

Amaiak ez du lesio larririk izan. Nik ere, oraingoz, ez dut aparteko lesiorik izan, baina, giharretan min hartu dut askotan, eta erorketek eta kolpeek bizkarreko mina eragin ohi digute eskubaloijokalariei. Niri, gainera, duela bi urte semea izan nuenetik, bizkarreko mina areagotu egin zait. Beraz, ez dakit nola egongo naizen hemendik urte batzuetara. Akaso, lesiorik izan ez arren, ez naiz gauza izango entrenatzaileak eskatutakoa egiteko. Batek daki.

Lesioek ez, baina haurdunaldia k zenbait hilabetez jokatu gabe egotera behartu zintuen duela bi urte...

Gogorra egin zitzaidan, batik bat, harmiletatik ikusitako lehen partidak. Lau hilabete

«Ilusio handia egin dit beti Euskadiko selekzioarekin jokatzeko»

eta erdi ziren haurdunengoela, baina oraingok jokatzeko moduan nengoela uste nuen. Hala ere, azken unera arte kirola egiten jarraitu nuen, igeriketa, esate baterako. Ama izan eta gero, sekulako gogoz bueltatu nintzen taldera.

Euskal Herriko bi neska eskubaloijokari joango zarete Atenasera: Susana Fraile zumarragarra eta zu. Hitz egiguzu euskal eskubaloiaz.

Beharbada, eskubaloian ari diren neska gehienak gazteegiak dira. Ondorioz, goi mailako txapelketa batean lehiatuz gero, gaitzetasun hori nabaritutako litzateke. Dena dela, hemengo neskek maila polita dugu. Adibidez, Euskadiko selekzioak orain-tsu Osito talde indartsua —talde horrek hamaika Liga Txapelketa eta Europako Kopak irabazi ditu— gaitzitu zuen. Frantziak ere, partidaren batean, amore eman behar izan du gure kontra. Niri beti ilusio handia egin dit Euskadiko selekzioarekin jokatzeko, jokalarion arteko giroagatik, batez ere.



Alberto Elosegi